


VITORIA-GASTEIZ HEZIKETARAKO ESPAZIO GISA



San Petri *eliza*



Vitoria-Gasteiz
Ciudad Educadora
Vitoria-Gasteiz
Hiri Hezitzailea



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

i b i l b i d e a

2007ko martxo

egitea:

Udaleko Hezkuntza Saila

diseinua:

Javi Roa

marrazkiak:

José García Maudo (*Vitoria gótica, Vitoria renacentista*-Vitoria-Gasteizko Udala. 1985)

argazkiak:

Luis María García Maestu (Udaleko Hezkuntza Saila)

argitaldaria:

Vitoria-Gasteizko Udala - Udaleko Hezkuntza Saila

inprimatzailea:

Imprenta SACAL

euskaratzea:

AIXE, S.L.

lege gordailua:

VI-189/07


San Petri eliza

Aurkibidea:

1. Ibilbidea	4
2. Sarrera	5
3. Elizaren eraikuntzazko ezaugarriak	8
4. Elizaren barrualdea	12
4.1. Kapera nagusia	12
4.2. San Isidroren abside kapera	15
4.3. Doloretako abside kapera	16
4.4. San Antonio Paduakoaren kapera	16
4.5. Beheko korua	17
4.6. Martinez de Salbatieratarren kapera	18
4.7. Bataiategiko kapera eta Erregeen Erretaula	19
4.8. Graziako Andre Mariaren abside kapera	22
4.9. Goiko korua	23
5. Elizaren kanpoaldea	24
5.1. Pedro Egaña kalea: Hegoaldeko elizpea, sakristia eta dorrea	24
5.2. Jesusen Zerbitzarien Fundatzailearen kalea: Mendebaldeko fatxada ...	25
5.3. San Pedroko pasabidea: Iparraldeko fatxada	25
5.4. Errementari kalea: Burualdearen kanpoaldea eta elizpe nagusia	26
6. Glosarioa	29
7. Bibliografia	30

N

1. IBILBIDEA




1. Bakardade kantoia
2. Elizako gurutzadura
3. Kapera nagusia
4. San Isidroren abside kapera
5. Doloreetako abside kapera
6. San Antonio Paduakoaren kapera
7. Beheko korua
8. Martinez de Salbatierratarren kapera
9. Bataiategiko kapera eta Erregeen Erretaula
10. Graziako Andre Mariaren abside kapera
11. Goiko korua
12. Hegoaldeko elizpea (Pedro Egaña kalea)
Sakristia
Dorrea
13. Mendebaldeko fatxada (Jesusen Zerbitzarien Fundatzailearen kalea)
14. Iparraldeko fatxada (San Pedroko pasabidea)
15. Burualdearen kanpoaldea (Errementari kalea)
16. Ekialdeko elizpea edo elizpe nagusia (Errementari kalea)

2. SARRERA

XV. mendearen amaieran, bost eliza gotiko eta bi komentu ziren parrokiako kabildoa osatzen zutenak:

- Santa Maria eliza, iparraldean. Litekeena da eliza hori jada Gasteiz herrixka zen garaian ere zutik egon izana. Nafarroako hiribilduan elizagotorleku gisa erabili zen.
- San Migel eliza, hegoaldean. Jatorriz, Victoria hiribilduko zin egiteko ermita izan zen.
- San Petri eliza, mendebaldean. Alfontso VIII.ak 1202. urtean egindako handitze lanen emaitza, harresiei atxikia.
- San Ildefonso eliza, ekialdean. Alfontso X.ak 1256. urtean egindako bigarren handitze lanen emaitza.
- San Bizente eliza, hegoaldean. Toki horretan zegoen gazteluari goialdea moztu ondoren sortua.
- Azkenik, San Frantzisko komentua, hegoekialdean, eta Santo Domingo komentua, iparmendebaldean (XIII. eta XIV. mendeetakoak).



ERANTZUN

Ondoko taulan, idatz itzazu aipatu diren elizaren eraikuntzak, eta bereizi gaur egun gordetzen direnak eta dagoeneko desagertu direnak.

GAUR EGUN GORDETZEN DIREN ELIZAK
EDO KOMENTUAK:

-
-
-
-

DAGOENEO DESAGERTU DIREN ELIZAK
EDO KOMENTUAK:

-
-
-
-



San Bizente eliza


Eliza guztiek dute gurutze latindarreko oinplanoa, gurutzadura eta absidea, San Bizente eliza izan ezik. Eliza hura Euskal Gotikoa edo Areto Gotikoa delakoari dagokio (XV. mendearen bukaerakoa).

Eliza horiek kaperatan daude banatuta barrutik, bai Ebanjelioaren habeartean, bai eta Epistolarenean ere.

Hala ere, koruak elizen behealdean daude (Errenazimenduko berezko ezaugarria).

Santa Maria elizak erromesaldi elizek izaten dituzten elementu bereizgarriak ditu: triforinoa eta girola, esate baterako. Gurutze ganga gotikoa hainbat arkuz dago osatua: arku toralak, parpain arkuak, arku formeroak eta trabes eskorak, pilare faszikulatuekin batera.

San Petri elizan elementu horiek mantendu dira, girola eta zutabe faszikulatuak salbu. Horiez gain, neurri txikiagoko triforinoa ere bada, Estibalizko Andre Mariaren gaur egungo kaperan (iparraldeko fatxadan).



Santa Maria katedrala. Barrualdea

- | | |
|---------------------------|--|
| 1. <i>Parpain arku</i> | 7. <i>Plementua</i> |
| 2. <i>Nerbio diagonal</i> | 8. <i>Gurutzadura</i> |
| 3. <i>Giltzarria</i> | 9. <i>Arku torala (gurutzaduraren arku formeroa)</i> |
| 4. <i>Tertzeletea</i> | 10. <i>Arku torala (gurutzaduraren parpain arku)</i> |
| 5. <i>Triforinoa</i> | 11. <i>Kapera nagusia</i> |
| 6. <i>Arku formeroa</i> | 12. <i>Girolako arku</i> |

San Petri eliza Callejatarren (Oinaztarrak) bandoaren egoitza izan zen. Hiribilduko familia nobleenak osatzen zuten Callejatarren bandoa, eta burgesen (merkatariak eta eskulangileak) aurka aritzen ziren, hiribilduko ekonomiaren eta politikaren kontrola eskuratzearren. Burgesak Aialatarren (Ganboarrak) inguruan batzen ziren. Oinaztarren alderdian zeuden familiak ziren, besteak beste, Callejatarrak, Maturanatarrak, Alabatarrak, Bergaratarrak eta Estellatarrak, eta Errementari eta Zapatari kaleetan zituzten etxeak. Bilerak 1476. urtera arte egin ziren, urte hartan bukatu baitziren bi bandoen arteko borrokak.



ERANTZUN:

Zer gertatu zen 1476. urtean?

Erdi aroko hiribilduko mendebaldean ziren kaleetako eskulangileek parte hartu zuten San Petriko parrokia jardueran. Auzoka, gremioka eta kofradiaka taldekatuta, kultuak, ospakizunak eta urteurreneko mezak ordaindu zituzten. Errementari kalea nabarmentzen zen, han Roke eta Sebastian santuak gurtzen zirela.

Herritarren debozioak kofradia garrantzitsuak ere iraunarazi zituen parrokia honetan, hala nola Sakramentu Txit Santuarena, San Antonena, eskribauena (San Lukas), San Sebastian eta San Bartolomerena bai eta desagertutako beste batzuk ere.

ERANTZUN:

Zer ziren auzoak eta zein eremu fisiko hartzen zuten?



BEHATU ETA ERANTZUN:

Horrelako giltzarria Gasteizko estilo gotiko zibileko eraikin bateko izar itxurako ganga zoragarrian ere baduzu.

Non?

3. ELIZAREN ERAIKUNTZAZKO EZAUGARRIAK

OINPLANOA ETA ESPAZIOAREN BANAKETA

Gurutze latindarreko oinplanoa du, luzetarako besoko hiru habearteak oso motzak dira, eta gurutzaduratik bukaerara hiru bitarte baino ez daude. Habearte horiek (nagusia, Ebanjelioarena eta Epistolarena) gurutzeria arrunteko gangek ixten dituzte, koruko gangaren kasuan salbu, tertzeleteak baititu.

Eliza 37 metro luze da, haren hiru habearteak 21,60 metro zabal dira, eta gurutzaduraren besoa 37,70 metro luze da.

Gurutzadurako zeharkako habearteak gurutzeria arrunteko gangak dituzten bost bitarte ditu, ezkeraldeko muturrean salbu, han tertzeleteak baitaude.

Burualdea (kapera nagusia) oktagonala da, zazpi alderekin, zortzi plementuko ganga du, eta beste hainbeste nerbio erdialdeko giltzarian elkartzen dira. Burualdearen ezkerreko aldean bi abside kapera (pentagonalak) daude, eta ezaugarri bereko kapera bakarra eskuinaldean. Ohikoena izango litzateke eskuinaldean ere bi kapera izatea, baina elizaren kokalekua zela eta, ezinezko izan zen hala egitea. Erraza da hori azaltzea: beste hainbat elementurekin batera, eraikin hau ere defentsarako multzoaren parte zen, eta elizaren oinek harresira ematen zuten. Hori dela eta, portada nagusia Errementari kalera begira zegoen, harresiz inguratutako eremuaren barruan.

MARKATU kolore desberdinekin honako hauek:


Luzetarako besoa; eta bereizi ondokoak:

- **Habearte nagusia.**
- **Alboko habearte** (eskuinaldekoa) edo Ebanjelioarena (*fededunen ezker aldean*).
- **Alboko habearte** (ezker aldekoa) edo Epistolarena (*fededunen eskuinaldean*).

Zeharkako besoa. Nabarmendu gurutzadura.

Kapera nagusia.

Alboetako abside kaperak.



GURUTZADURA

Nerbioak, eta parpain arkuak zein arku formeroak, denak zorrotzak, erdigunea eta atxikitako zutabetxoak dituzten pilareetan daude sostengatuta. Horiek guztiak zerrendetan jarritako fronda kapitelen besarkatzen dituzte.

BEHATU kapituletako dekorazioari.

Ziurrenik, XVI. mendean, habearten zabalatasuna zela eta, gurutzaduran eta habearten trabes eskorazko arkuak eta entibo arkuak (horma edo zutabeetan haiek sendotzeko jartzen zirenak) eraiki behar izan ziren, zutabeen «makulu» gisa, zutabe horien egonkortasuna eta teilatuen mantentzea ziurtatzeko.

Gurutzaduraren habearten ezker aldean triforioaren tarte bat dago, hiru gingildun baorekin eta sakonera kuadrifoliadun karelekin (Santa Maria katedralekoaren antzekoa).





AURRETIKO BISTA

1. Arkuak:

Ogiba arkuak edo arku zorrotzak, hainbat izenekin, haien helburu arkitektonikoaren arabera:

- arku toralak
- arku formeroak
- trabes eskorazko arkuak edo entibo arkuak
- parpain arkuak

AURKI ITZAZU

2. Mentsulak:

Estilo gotikoko arkitektura eta dekorazio sistemaren zati ziren. Estalkiak bultzatu egiten zituen atal teknikoak nerbioen bitartez, eta, atal horiek, era berdintsuan transmititzen zuten bultzada parametroan zehar, ostiko eta zutabeetaraino.



3. Gangak:

Honako hauek osa ditzakete gangak:

- gurutzeriek
- tertzeleteek
- tertzeleteek eta kopatuek


ERANTZUN:

Elizaren zein aldetan dago ondoko ganga? (Argazkiko zenbakiek nerbio motak adierazten dituzte):

1• 2•

3• 4•

AURKI ITZAZU gangan.



4. Baoak:

Burualdea argitzen dute elkarren gainean jarritako bi leihatek. Luzangak eta zorrotzak dira, arkiboltetan baketoiak dituzte eta leihozangodunak dira. Mainel finak dituzte, bai eta tinpanoak ere, bao trilobulatuen bitartez (kapera nagusian) eta idi begi ukitzaille loreztatuen bitartez (alboetako kaperetan) sartuak.

Kapera nagusiko bigarren sortako leihateak isuri txikiagokoak dira, eta hiru izar itxurako arrosa leiho koadrifoliatuk irekitzen dituzten mainelak eta tinpanoak ere badituzte.

Eraikin gotikoetako leihateek ausarki urratzen dituzte hormak, eraikuntzan ez baitira kide aktibo, itxiera elementu baino. Oro har, zorrotzak izaten diren bao gotikoetan hainbat elementu aurki daitezke, hala nola mainel finak, idi begi loreztatuen edo trazerien bitartez sartutako tinpanoak, edo moldura arinak, maiz apainduta izaten diren arkiboltetan eta estradosetan.

(Portilla, Micaela. Vitoria Gótica, 1985)

Beiraterik zaharrenak 1861. urtekoak dira, eta Doloreetako abside kaperan daude.



Doloreetako abside kaperako beirateak



Burualdeko leihatea.

1. Arkuarte
2. Arkibolta
3. Estradosa
4. Tinpanoa
5. Mentsula
6. Sartutako idi begia, bost foliolokoa
7. Mainela
8. Baketoiaren edo molduren leihozangoa

4. ELIZAREN BARRUALDEA

4.1. KAPERA NAGUSIA



Kapera nagusian daude aro gotikoerrenazentistako hilobi asko. Hilobi monumentu horien aurrealdeetako heraldikak, bai eta absideko giltzarrietan eta zortzimaraikoan irudikatzen denak ere, errege patronatuko eliza zela adierazten digute.

Hainbat dira giltzarrietako gaiak: gai hagiografikoak, errege patronatuari buruzkoak, edo emaileei eta eskulangileei buruzkoak.

Familiak ere azaltzen dira: Alabarrak, Mendozarrak, Ruiz de Bergararrak, Estellarrak eta Martinez de Salbatierratarak, besteak beste. Familia horiek, Oinaztarren bandoko buru zen Calleja familiarekin batera, Errementari kalearen jabe izan ziren garai batean.

Hau da Alaba familiaren kapera. Ikuslearen ezker aldeko lehen zortzimaraikoan dago Pedro Martinez de Alabaren hilobia. Brontzez dago egina, garai hartan (XVI. mendeko lehen erdian) jendeak atseginen zuen eran.



BEHATU txakurrari eta filigranan egindako lanari.

IRAKURRI eskaintza.



Bigarren zortzimaraikoan Diego Alaba Eskibelen (Pedro Martínez de Alabaren iloba) hilobia dago. Brontzekoa da, 1562an egina, eta elizan zuen karguaren ezaugarriak adierazten ditu: mitra, makulua, eraztunak, meza jantzia, eta abar.

Ikuslearen eskuinaldeko zortzimaraikoan Juan Ruiz de Bergara (Diego Alaba Eskibelen ezkonanaia) otoitzean erakusten duen eskultura dago.

Alabastroz egina da, Leoni italiarren gustuei jarraikiz, eta Felipe II.ak babestua penintsulan.

XVI. mende bukaerako Errenazimenduko adierazgarri da, eta garai hartako janzkera du: goleta, koraza, zaragoilak, eta abar.

ADIERAZI irudian ondoko elementuak: goleta, koraza eta zaragoilak.



Eta, familia panteoian azkena, Diego Martinez de Alabaren irudi etzana. XIV. mende bukaerako eskultura gotikoa. Harriz egina da, eta jantzietan tolesduren hieratikotasuna eta angelutasuna antzeman daiteke.



BEHATU gaiaren trataerari, hildakoaren antolaerari, dekorazioari eta hieratikotasunari. Erdi Aroko **TRANSLATIO ANIMARUM**eko ideia buruari eusten dioten bi aingerutxoren bitartez adierazten da.



Kapera nagusian titularraren (San Petriren) tailua gailentzen da. Font eskultorearen lana da, 1901ean egina.

4.2. SAN ISIDROREN ABSIDE KAPERA

Garzia Martinez de Estellaren hilobia, XVI. mendeko lehen erdialdekoa. Harriz dago egina, jantziak xeheki apainduta daude eta aurpegia modu oso naturalean dago landua. Aurpegia aldare nagusirantz dago begira.



BEHATU hildakoaren dekorazio motiboei: gruteskoak, munstro animaliak, landare filigranak eta arkuaren intradosean diren kasetoien xehetasunak ageri dira. Kasetoiek puttihaurtxoak dituzte.

ERANTZUN:

Zergatik dago aurpegia aldare nagusirantz begira?

.....

4.3. DOLOREETAKO ABSIDE KAPERA

Kapera honetan dago Maria Martinez de Orraindiren hilobia, San Antonioko gaur egungo kaperatik ekarria. Mendeetan zehar irudia eduki zuen arkosolia dago San Antonioko kaperan.

Hurtado de Mendozatarren leinuko dama honen eskultura etzana garai hartako gustuen arabera egin zen. Jantzien estiloa XVI. mendeko bigarren erdialdekoa den arren, aurpegia lantzeko erak eta tolesturek, bai eta besoak elkarren ondoan jarrita izateak ere, mende hartako lehen erdialdean berezkoago izan zen naturaltasuna adierazten dute.

JARRI ARRETA irudi etzanaren kuxin handien xehetasunetan.

4.4. SAN ANTONIO PADUAKOAREN KAPERA

Kapera honetara iristeko, Estibalizko Andre Mariaren kaperatik (hemendik sar zitekeen elizara, iparraldeko portadatik; gaur egun itxita dago) eta Pilareko Andre Mariarenetik pasatu behar dugu.

San Antonio Paduakoaren gaur egungo kapera Maria Martinez de Orraindik sortu zuen 1590ean, San Lukas izenarekin, eta han jarri zuen haren hilobia.

Andre horren hilobiaren gainean zegoen arkuak, gaur egun, bilera gelarako sarbidea ematen duen atea mugatzen du.

Erdibitutako frontoi erdi makotuak, haren dekorazio horzdunak, atxikitako joniar pilastrek, eta bi pinakuluetako akaberak adierazten dute Errenazimenduko garai aurreratukoa dela, manierismo barrokotik hurbilagokoa.



4.5. BEHEKO KORUA

Elizaren behealdean den koruak gotiko berantiarreko ezaugarriak ditu. Korurantz begiratu gero, balaustradaren eskuinaldean oinmentsula bat ikus daiteke, gizonezko baten aurpegi arkaikoa duena.

Tertzeleteen bidez itxitako gangaren hiru tartek estaltzen dute beheko korua. Arku beheratuak ez daude dekoratuta, ez eta arkuak eusten dituzten zutabeak ere. Zutabeok elizan direnetatik zaharrenak dira.



GOGORATU korua harresiaren ondoan dagoela kokatua.

4.6. MARTINEZ DE SALBATIERRATARREN KAPERA

Gaur egun, kaperatik sartu behar da elizara. Kapera horretan daude hilobiratuta Salbatieratarren leinukoak.

Han egon ziren Erregeen Erretaula eta hura ixten zuen burdin hesia; gaur egun aldameneko kaperan dira.

Diego Martinez de Salbatieraren hilobia elizan diren hilobien artean garrantzitsuena da, kalitate artistiko handia baitu.

Estilo platereskoa du, bai eta apaintze korrante horren adierazgarri diren dekorazio elementuak ere:

- Arkosolioa eta alboan dituen bi zutabeak, fuste ildaskatukoak eta akantodun kapiteldunak. Kerubinen aurpegiak dituzte landuta eta familiaren ezkutuak akabera ematen die.
- Arkuaren intradosa eta estradosa dekoratzen dituzten arrosa leihok, girlandak eta karatulak.

Irudi etzanak zibilen janzkera du. Horrez gain, birreta eta garai hartan zuen karguak eskatzen zion arropa (Gasteizko eskribaua zen kapera eraiki zenean) ere badu.

Aurrean den horman harrizko arku dago, lehenago Erregeen Erretaula zegoen tokian. Orain, toki horretan, Kristoren irudia ikus dezakegu, gurutziltzatuta.

Arkuak dekoratuta dagoen moldura bakuna du, eta erliebe gutxiko akanto hostoak ikus daitezke arkiboltan. Gruteskoekin dekoratutako pilastrek mugatzen dute, eta maitasun aingerutxoen aurpegiak dituen taulamenduak ixten dute.

Eta, dekorazioa osatzeko, puttiak ikus daitezke, burezurak, maskaroiak, pertsonaia itsusiak eta estilizatutako landare elementuak dituztenak.



4.7. BATAIATEGIKO KAPERETA ERREGEEN ERRETAULA


Bataiategia eta Erregeen Erretaula hartzen dituen kapera hau gurutzadurako eskuineko muturrean dago, Errementari kaleko ate nagusiaren ondoan. Hori izan zen elizarako sarrera, elizpe neogotikoa eraiki zen arte.



BATAIATEGIKO KAPERETA

Bataiategia iparraldeko horman egon zen. Bataiarria ogiba zuloan zegoen, eta, gaur egun, Maria Martinez de Orraindiren hilobia dago han.

Elizpe neogotikoko lanak zirela eta, bataiategia gaur egun den tokira eraman zuten. Eta, orduan, hemen jarri zen Martinez de Salbaterratarren kapera ixten zuten burdin hesia. XVI. mendeko forja da. Ateko balaustreen oinarrian harrizko azpoinarriak daude, eta Adurtzatarren eta Salbaterratarren ezkutuak dituzte. Bataiarria Mañariko harriz egin zuen Nicolas Aramburuk 1785ean, eta estilo neoklasikoa da.



Erregeen Erretaula.

- | | |
|-------------------------------|--|
| 1. Bankua | 8. Kalbarioko taldea |
| 2. Gorputzak | 9. Epifaniako eszenatoki nagusia |
| 3. Akabera | 10. Artzainen adorazioaren erliebea |
| 4. Ebanjelioaren kalea | 11. Barrualdeko tertzio dekoratuko zutabea |
| 5. Kale nagusia | 12. Maskorra edo txirla |
| 6. Epistolaren kalea | 13. Uhal formako kartela |
| 7. Tailua edo konkor biribila | |

ERREGEEN ERRETAULA

Erregeen Erretaula Martinez de Salbatierrezarren gaur egungo kaperatik ekarri zuten hona, eta gure hiriko arte errenazentistako lanik adierazgarrienetakoa da. Juan Ayala II. eskultoreak 1564. eta 1566. urteen artean egin zuela uste da.

Honako elementu hauek ditu:

- Zapalda.
- Erdiko gorputza, Epifaniako eskultura multzoa eta, alboetako kaleetan, San Petriren eta San Pabloren irudiak dituenak.
- Bigarren gorputza, kalbarioaren agertokia, eta hegaletan, Santiagoren eta San Juan Bautistaren bidezidor tailuak dituenak.
- Teiltupea, frontoi makotudun bukaera duena, eta tinpanoan Aita Betikoaren erliebea.

Kaleen arteko dekorazioaren osagarri dira fuste ildaskatuko zutabeak, kapitel konposatuak, landare motiboak, kerubinen buruak eta apaingarriztatutako candelieri gruteskoak dituzten azpioinarriak edo frisoak.



ERREPARATU HONI: zapalda, gorputzak eta teilatupea horizontalean daude jarrita. Hiru kaleak (Ebanjelioarena, nagusia eta Epistolarena) bertikalean.

Gurutzadurako beso honetan, Aingeru Zaindariaren erretaula ere nabarmentzen da. Erretaula hori San Ildefonsoko parrokiatik ekarri zuten (gaur egun ez dago parrokia hori, eraitsi egin baitzuten). Parrokia Pintore kalean zegoen, eta han, XVII. mendean, bazen jada San Ildefonso izeneko kofradia.

AZAL ITZAZU erretaularen ezau-garriak, eta **ADIERAZI** erretaula honen, Erregeen Erretaularen eta beheko koruan dagoenaren arteko aldeak zein diren.

4.8. GRAZIAKO ANDRE MARIAREN ABSIDE KAPERA

Kapera honetan nabarmentzekoa da XV. mende hasieran harri polikromatuz egin zen Graziako Andre Mariaren tailu gotikoa. Irudian agerikoa da frantziar eragina, eta naturalismo handia erakusten du gaia tratatzeko orduan. Hartara, begizko komunikazioa dago soina erdi itzulita duten amaren eta semearen artean. Halaber, tolesdura bihurriko jantziak dituzte, bai eta mantua ere, belauen gainean angeluan jarrita.



ALDERA EZAZU

tailu hori Erromanikoko Andre Mariarekin eta ADIERAZI zer alde dagoen.

4.9. GOIKO KORUA

BEHATU oinplanoaren banaketa perspektibari eta elizaren aurretiko bistari.



JARRI ARRETA giltzarriei eta mentsulei.

Korua XV. mende amaieran eraiki zen; arkitektura elementuek eta ikonografiako xehetasunek erakusten dute hori (giltzarriek, erliebeak, mentsulek, eta abar).

Koruko leihateak modernoak dira. Koruko erdiko hormaren eta harresiaren artean barruti estua zegoen, gaur egun itxita dauden hutsuneekin. Itxura arkaikoko bi leihoren bitartez komunikatzen ziren eliza eta defentsa izaera nabarmeneko toki hau.



Balaustrada 1722an eraiki zen. Burdinazkoa zen eta 1913an gaur egun ikus daitekeen harrizko balaustrada jarri zuten haren ordez.

Organoa alemaniar jatorrikoa da, hiru teklatu ditu eta 1925ean jarri zuten 1781az geroztik zegoen organoaren ordez.



5. ELIZAREN KANPOALDEA

5.1. PEDRO EGAÑA KALEA: HEGOALDEKO ELIZPEA, SAKRISTIA ETA DORREA

HEGOALDEKO ELIZPEA

Elizpe neogotikoa 1898an amaitu zuen Fausto Iñiguez de Betolatzak. Ixten duen ganga 1897an jarri zuen Ricardo Lopez de Uraldek.

Goialdea apaintzen zuten pinakuluak falta dira, harria baldintza txarretan egoteagatik eraitsi baitzuten.



SAKRISTIA

Sakristia 1785ean eraiki zen eta elizako elementu neoklasikoa da. Barnealdea nabarmentzekoa da, apaintzen duten mihiseak direla medio: Daviden bizitzako eszenak (XVIII. mendekoak); Familia Santua, emailarekin (XVI. mendekoa); eta Sortzez Garbia, Murilloren kopia.

DORREA

Hasierako dorrea gurutzaduraren ezker besoan zegoen. Kanpai horma baxua eta soila zen, eta 1712an eraitsi zuten. Gaur egun dagoena 1703. eta 1769. urteen artean eraiki zuten Francisco Echaniz harginak eta Mateo Ortiz de Zarate zurginak. Errementari kaleko elizpe gotikoaren gainean dago.

Dorreak oktogono itxurako danborra du, puntu erdiko baoekin eta idi begiekin. Pilastra angeludunekin errematatutako lau angeluko gorputzaren gainean dago. Multzo osoa harri landuz eginda dago. Oktogono itxurako tenpletea boladun pinakuluekin apainduta dago, eta linterna politarekin errematatuta.



5.2. JESUSEN ZERBITZARIEN KALEA: MENDEBALDEKO FATXADA

San Petri eliza eraiki zen defentsa kuboaren aurrean gaude.

BEGIRATU leiho arkulariei eta eraikinaren irmotasunari. Ez ahaztu Zapardiel ibaia harresiaren ondotik igarotzen zela.

5.3. SAN PEDROKO PASABIDEA: IPARRALDEKO PORTADA



Iparraldeko portada, itxura zakarragokoa, hasierako gotikokoa da. Harresitik elizara sartzeko erabiltzen zen jatorrizko sarbideari lotzen zaio.

Goian arku zorrotza dago, kanpoaldean arrosa leihoekin eta barnealdean arkibolta leunekin apainduta. Halaber, lau arku itsu zorrotz trifoliatu daude behealdean. Arkuarteetan bibliako gaietarako buruzko baxuerliebeak daude. Hain zuzen, honako hauek ikus daitezke, ezkerretik eskuinera: paradisuatik kanporatzea, Noeren arka, Kainen heriotza.

IDENTIFIKA ITZAZU goian azaldutako xehetasunak.

5.4. ERREMENTARI KALEA: BURUALDEAREN KANPOALDEA ETA ELIZPE NAGUSIA

BURUALDEAREN KANPOALDEA

Lau abside kaperek ostiko handiak dituzten kanpoan. Mentsulak eta droselek apaintzeko asmoa adierazten dute.

ADIERAZI droselak eta mentsulak.



Leihateetako estrados baketonatuetatik giza irudiak nahiz munstro itxurako animalien irudi errealistak jaisten dira.

ELIZPE NAGUSIA

Errementari kaleko elizpe irekia ekialdera dago orientatuta.

Ohiz kanpoko kokaleku horren arrazoia da elizaren oinetara atxikita zegoela jatorrizko harresia.

Puntu erdiko arku handia du dorrearekin eraikita, bai eta arkiboltez inguratutako tinpanoa barnean duen arku zorrotza ere.

Arkuaren txaranbeltze arinaren inguruan apostoluen lau eskulturak daude, animalia eta landare motiboekin apaindutako pilastren gainean.

Gai horiek ohikoak dira Rouen eta Lyongo frantziar katedraletan; nolana ere, Andre Mariaren katedralak Notre Dâme eta Chartresen ereduari jarraitzen dio.

Gotikoko eskultura portadek hezteko eta apaintzeko funtzio bikoitza zuten.

Erromanikoko sinbolismoa eta ikuspegi apokaliptikoak desagertu, eta ikusleentzako gertukoagoak ziren eszenak agertu ziren. Horietan, bibliako eta Andre Mariaren bizitzako pasarteak kontaktzen dira, tinpanoetako zerrendetan.

Elizpeko tinpanoko hainbat zerrendatan Ama Birjinaren eta elizaren patroia biziaren bizitzako pasarteak kontaktzen dira: hain zuzen, San Petriren bokazioa, bizitza, martirioa eta zerurako igoera.

ERANTZUN

Nola irakurri behar dira tinpano gotikoak?

.....

Antzeko portadak dituzten zer beste portada gotiko ezagutzen duzu Gasteizen?

.....

BEGIRATU nola banatzen diren tinpanoko eszenak bost zerrendatan.

Ezkerretik eskuinera eta behetik gora bereizten dira:

- 1 zerrenda:** Andre Mariaren bizitza: Deikundea, Ikustaldia, Jesusen jaiotza, Epifania eta Aurkezpena.
- 2 zerrenda:** San Petriren bokazioa Tiberiades lakuan eta Primatua ematea.
- 3 zerrenda:** San Petri uren gainean, Jopeko ikuspegia eta Cornelio zenturioiaren bihurketa.
- 4 zerrenda:** San Petri kartzelatik irteten da, martirioa eta santua buruz behera gurutziltzatzea.
- 5 zerrenda:** (*ez da ia atzematen*) San Petri zerura igotzea.

BEHATU mainelari. Zer adierazten dute Ama Birjinaren idulkiaren azpian diren dragoien aurpegiek?



*Gotikoko portada txaranbelduetan, leihozangoetako, arkiboltetako, maineletako edo tinpanoetako eskultura eta erliebeetan, fededunei betiereko bizitzarako sarre-
ra iragartzen zitzairen, alegia, horretarako, Kristo dela bidea eta atea.*



San Petri elizaren portada:

- | | |
|--------------------------------|-------------|
| 1. Arku trilobulatua | 5. Idulkia |
| 2. Arkibolta | 6. Drosela |
| 3. Mainela | 7. Mentsula |
| 4. Tinpanoa (bost zerrendakoa) | |

6. GLOSARIOA

ABSIDEA: Zirkulu edo poligono formako eraikuntza atala, elizaren perimetrotik irreten dena habearte nagusiaren muturrean, aldare nagusiaren atzealdean.

AJIMEZA: Leihu bat, zutabetxo batek goitik behera erdibitutakoa.

ARKIBOLTA: Arku baten aurrealdean ipinitako molduren eta apaingarrien multzoa.

ARKUA: Arkitekturazko egitura makotua, bi zutabe edo pilare elkartzen dituen, haien gainean goiko hormaren pisua jarriz. *Arku zorrotza edo ogiba arku:* bi kurba segmentu berdinek, giltzarrian angelua eraturik, osatzen duten arku, intrados ahurra duena. Arku konopiala: gila gainazpikatuaren forma duen arku; lau zentro ditu: bi barnekoak, beheko adarretarako eta beste bi, kanpokoak, goiko adarretarako. *Arku diagonal:* ganga baten bi angelu diagonaletik elkartzen dituen arku. *Erdi puntuko arku:* zirkunferentzierdi batek eratutako arku. *Arku torala:* habearte gangaduna sostengatzen duten arkuak, gangaren ardatz handiarekiko zutak direnak.

ARROSA LEIHOA: Elizaren fatxadan irekitako leiho zabal biribila.

AURREALDEA: Eraikinaren aurrealdea, sarrera nagusia den aldeari dagokiona.

AZPIOINARRIA: Zutabe edo estatua baten beheko alde, oinarria.

BITARTEA: Eraikin baten bi euskarriren artean (zutabeak, pilareak, eta abar) dagoen tartea.

DEANBULATORIOA: Eliza bateko alboetako habearteen luzapena, transeptutik harantz doana, koruaren inguruan.

DIPTIKOA: Forma eta neurri bereko bi oholek edo gorputzek eratutako pintura edo eskultura lana, oro har, tolestu egin daitekeena, ardatzean ipinitako erroen bitartez.

DOBELA: Arkua osatzen duten ziri erako piezetako (harlanduak edo adreiluak) bakoitza.

DROSELA: Tenplete itxurako estalkia, estatua baten gainean jartzen dena, babes eta apaingarri gisa.

ERRETAULA: Aldarearen gainetik kokatzen den pintura edo eskultura lana, erlijiozko gaia duena. Hainbat panel izan ohi du: erdiko panela, elizaren izenari loturiko gaia ageri ohi dena, eta panel osagarriak, alboetan (kaleak) edo behealdean (predela).

FRESKOA: Horma pinturan erabilitako teknika; kare uretan urtutako koloreak horma igeltsuztatu berrian ezartzen dira, eta, horrela, koloreak xurgatu egiten dira, eta bat egiten dute hormarekin.

FRONTOIA: Fatxada baten erdialdearen gaineko erremate trianguluarra. Halaber, portada batean, ateburuak eta arki-boltak mugatutako erremate trianguluarra da.

GANGA: Estalki makotua, hormen edo hainbat pilareren arteko esparrua estaltzen duena. *Kanoi erdiko ganga*, hots, zilindroerdi formakoa, eta *ertz ganga*, kanoi erdiko bi gangaren elkargune zutean eratzen dena, tipikoak dira arkitektura erromanikoan. Gotikoaren bereizgarri den ganga *gurutze ganga edo ogiba gangada*; arku zorrotzek edo ogibek eratzen dute haren kurbadura, eta nerbioek (gurutzeria) eusten diote. Ganga mota horren bidez askotariko esparruak estal daitezke, eta bultzada puntu zehatz batzuetan kontzentra daitezke.

GILTZARRIA: Arku baten erdiko dobla. Ganga baten erdiko pieza.

GINGIL ANITZEKOA: Hainbat gingil (arku erako sartuneak edo irtegunek) duen egiturari dagokio.

GURUTZE GREKOA: Zenbait erlijio eraikuntzetan erabilitako oinplanoa, lau beso berdin dituen.

GURUTZE LATINDARRA: Kristauen erlijio arkitekturaren gehien erabilitako oinplanoa, beheko beso luzeagoa duena.

GURUTZERIA: Gangen elkarguneko nerbioen multzoa.

HABEARTEA: Elizaren barrualdean, bi zutabe edo pilaren errenkadaren artean dagoen esparrua; eliza handienetan habearte nagusia, handiena, eta haren albo banatuko habearteak, txikiagoak eta, oro har, baxuagoak, izaten dira.

INTRADOS: Arku edo ganga baten barrualdeko gainazal ahurra.

KAPITELA: Zutabe baten goialdea, arkitrabearen edo arku baten muturrean (inposta) euskarri izaten dena.

KORUA EDO PRESBITERIOA: Aldare nagusiaren inguruko eremua eliza batean, habeartetik harmailen bidez edo burdin langa baten bidez bereizirik egoten dena. Elizjendearentzat erreserbatua dago.

LEIHO KOSKA: Portale edo leiho baten inguruko murruari egindako ebaketa zeharra, itxuraz zabalagoa iruditzeko eta argi gehiago sartzeko egina; aro gotikoa, portaden inguruan bereziki, leiho koskek eskulturazko oso dekorazio aberatsa izaten dute.

LEIHO TRIFOROA: Bi zutabetxok goitik behera hiru zatitan banatutako leihoa.

LOGIA: Galeria estalia, alde bat, guxtienez, irekia duena.

MINIATURA: Tenperaren antzeko pintura teknika, pergami-noan, paperean eta bolian erabiltzen dena, eta bereizgarritzat neurri txikiak dituen.

NERBIOA: Oro har irtena den egitura, gangaren bultzada estatikoa -hau da, pisua- xurgatzeko zeregina duena.

OINALDEA: Eraikineko behealdeko eraikuntza lana, gainazal berdina sortzen duena, azpioinari guztiak maila berean egon daitezten.

ORRATZA: Oso piramide zorrotz baten forma duen arkitekturazko egitura, apaingarri eta gailur gisa erabiltzen dena dorreetan, kanpandorreetan eta, oro har, katedral gotikoen goiko aldeetan.

OSTIKO ARKUA: Eraikuntza baten kanpoaldeko arku erdiko egitura, gangen bultzada moteltzeko zeregina duena, bultzada hori ostikoetara bideratuta.

OSTIKOA: Eraikin baten kanpoaldera atxikitako horma egitura, eraikina sendotzeko bultzada handienak jasaten dituen puntuetan.

PILAREA: Arkitekturazko elementu euslea, ebakidura poligonalekoa, oro har, eta zutabea baino sendoagoa dena. Arkitektura gotikoan *pilare faszikulatua edo sortakutua* maiz erabiltzen da, hau da, zurtoin erako moldura zilindrikoen sorta batek (baketoiak) inguratutako pilarea.

PINAKULUA: Kono edo piramide itxura duen orratz mehea, ostiko baten gainaldean gailur gisa jartzen dena; apaingarria izateaz gain, zeregin estatikoa du, ostikoari pisua gehitzen dionez, ostiko arku baten bultzada xurgatzen laguntzen baitio.

PLEMENTUA: Gurutze ganga batean, nerbioek hura banatzean eratzen duten zatietariko bakoitza.

POLIPTIKOA: Hainbat konpartimenduz osatutako margolana edo eskultura lana. Konpartimendu horiek bi badira, diptikoa deritza; hiru badira, triptikoa.

PORTADA: Elizako ate nagusia; neurri handikoa izaten da, eta apaindura aberatsa izaten du.

TENPERA: Pintura teknika, disolbatzailatzat aglutinatzailearen batekin (arrainitsagarria, gorringoa, piku esnea) nahasitako ura erabiltzen duena.

TRANSEPTUA: *Curutzadura* habearteari dagokio, hau da, gurutze latindarreko oinplanoa duen eliza bateko zeharkako habearteari.

TRIFORIO: Arku galeria (leiho triforioak izaten ditu) txikia, eliz bateko albo habearteen gainean irekitzen dena.

TRIPTIKOA: Hiru oholek edo gorputzek eratutako pintura edo eskultura lana; askotan, tolestu egin daiteke, alboetako oholak erdikoaren gainean eztanda.

ZUTABEA: Zilindro formako arkitekturazko elementu bertikala; haren osagaiak oinarria, fustea edo enborra eta kapitela dira, oro har.

7. BIBLIOGRAFIA

HAINBAT EGILE: *Monumentos nacionales de Euskadi. Álava*. Elexpuru argitaletxea. Eusko Jaurlaritza. 1985

PORTILLA, Micaela: *Vitoria gótica*. Gasteizko Udala. 1985

ECHEVARRÍA GOÑI, Pedro eta GONZÁLEZ DE ZÁRATE, *Jesús: Vitoria renacentista*. Gasteizko Udala. 1985



Vitoria-Gasteiz
Ciudad Educadora
Vitoria-Gasteiz
Hiri Hezitzailea



Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala